

AMETS BAT



(NERE ADISKIDE ANTONIO ARZÁC MAITEARI)

Jaungoikoak esan zion beñ Udaberriari,
Prestatu zayozu maya janariaz arrari;
Eta ginda zuaizean bereala ostua,
Jayo erazi zuen ark guri ta samurchua;
Baita arraultzatic arra kanpora du agertzen,
Koskolak bere barruan zuena zarratutzen;
Anchen nekez igarorik negu beldurgarria,
Ekin zezayon bertatik jaten ginda orria;
Eta nola gusto ona dion berari artzen,
Kostatuagatik zerbait ortzakin chikitutzen,
Bere kasa esan zuen gozoa det billatzen.

Bigarrenez Jaungoikoak baita dio esaten,
Erlearentzat asteko maya janaz prestatzen;
Orduan ginda zugatza lora zuriz da jazten,
Iñoizko miragarrien urrutira da agertzen;
Eta urrengo goisean Eguzkia jaikia
Zanean loreagana badijoa erlia,
Billatzean zuri eta katillu antzekoa,
Iritzi zitzayon ontzi kafea antzekoa;
Eta bere muturchoa barrenean sartzean,
Eta bertako zumoa pozpozik edatean,
Esan zuen: zeñ gozoa dan emengo likurta,
Azukarraz dagoela diruri konponduta.

Jaungoikoak udeari esan zion urrengo,
Chorichoari zer jana ere prestatutzeko;

Arek sortzen ditu laster ginda mordozkachuak,
 Chorichoak ikustean asten ditu *chiuak*;
 Atozkit ordu onean ichedon men maya,
 Probatu dezadan noizbait zerorren janaria;
 Irichi dezadan indar galdu nuena gaur nik,
 Aspaldian ni bizi naiz ezin jota soñurik.

Uda azkenari gero, Jaunak esaten dio
 Etorri zatzu aldia zerorri agintzeko;
 Kendu itzatzu mayetan dauden zapi oyalak,
 Bukatu diradelako osotoro zer janak;
 Eta nola gosetiak guziak ase diran,
 Nai det orain zere lanak egitera zoazan.

Orduan Uda azkenak aspoturik agua,
 Asnaz laster egiten du aize indartsua;
 Gaur dario epelchoa, bigar izotzezkoa,
 Ostua ipini arte ori ta igartua;
 Azkenez zugatzetatik urratuta aidean,
 Darabil luma bezela goisean zein gauean,
 Gogoak ematen dion ordu bere berean.

Jaungoikoak azkenean diotsa Neguari
 Begiratu zuk zayozu gaur kanpo zabalari,
 Eta ikusiagatik larru gorritz billosa;
 Erakutsiten zuela zer dan bere biotza,
 Elurrezko maindire bat botarikan zabala
 Negu gogor gordin beltza aldendu zan lotara.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

Ochandion, 1898-ko Illbeltzean.

